

EDESTI LABURRA

Urte guztietan lez, ospatu dogu aurten be, Eskolapioen Ikastetxean, Euskerazaleak Alkartek eratu daun Euskal-Astea.

Egunero berrogei edo berrogei ta amar entzule izan doguz.

Izlari bakoitxari Zubiri'tar Iñaki'k egin dautso aurkezpena eta azkenean, Solozabal'dar Paulin'ek bertsotan agurtu dau izlaria.

Iru ordu lauren ingurukoak izan dira itzaldiak eta ostein beti izan da, luzeago edo laburrago, alkar-izketa.

Gaiak gogoangarriak eta izlariak egokiak.

Egunero DEIA egunkarian agertu dogu egin-dako itzaldiaren laburpena eta urrengo egunekoaren oarra.

Lenengo egunean Olazar'tar Martin'ek egin eban berba eta gaia Kolon eta Euskaldunak izan zan.

Benetan jakingarria da euskaldunak Ameriketan izan eben zeregiña, bai Kolon'en laguntzaille lez eta ez gitxiago urrengo urteetan. Euskaldunak beti izaten ziran talde berezia, izkuntza berezia eukelako, eta sarritan jarri ziran Kolon'en aurka, onek zuzentasunez jokutzen ez ebanean edo emon eban berbea beteten ez ebanean.

Euskaldunen izaera berezia agertzeko bide lez, odola artu eban Arrinda'tar Anes'ek bigarren egunean, oiñarri lez Jaka-Kortajarena'ren liburu dala. Egokia da Anes'ek gai au azaltzeko erabilten dauan era berezia, ura eta margoak nastauta.

Argi geratu zan ez garala ez obeak eta txarra-goak, baiña bai ezbardiñak. Ori ez da endakeria or daukagun jakingarri bat baiño.

Arana Goiri'tar Sabin'ek ikutu aundia izan eban Euskalerraren kondairan: ainbeste urtetan

inguru'ko laterriak gure erria menperatzeko egin daben alegiñak gure pentsakerea be aldatuta eukan, baiña Sabin'ek bere eldutasunera eldu zanean, Euskalerria zer eta zelakoa izan bear zan argi ikusi eban eta ortik datorkuz gaurko ikuspegi bereziak.

Ondo azaldu eban gaia Oñatibia'tar Manu'k. SABIN'entzat irudi bat eskatu eban.

Arrien'dar Gregorio gizon apala ta jakituna, Kondaira-arloan Dotoretza-mailla lortua. Bere Maixu - lanaren gaia Irakaskintza Euskalerrian izan zan.

Pozik entzun geuntson aste onetako berbal-diaren gaia: Gernika'ko Batzarrak eta Bizkai'ko Jauna. Zati bitan banandu eban ekiñaldia, izenak berak diñoan lez.

Argi agertu eban zelan joan diran gure erriaren eskubideak egunerik egunera galtzen eta zelan joan diran espāñatarrak gure buru-jabetza eurenganduten.

Euskaldunen abizenak aztergai sakona ta zabala dira eta gai oneri buruz itzaldia egiten dauan bakoitxak ikuspegi berezi bat artuko leuke alkarren barririk jakin ezik.

Augustin Zubikarai'k be bere ikuspegitik azaldu eban gaia.

Gure abizenak etxeetatik edo errietatik artuak dira geienak, baiña etxeak berak giro ezbardiñak izan dauzan lez alan abizenak be. Aberezaiñen giroa zanean, abeletxeak, lugiñen arloan bizi diranak lurraren giroko abizenak, olak indarra euken aldian ola-etxeak eta abizenak, eta batzutan etxea non dagoan agertzen daben abizenak.

Gauza asko ikasi dogu aste onetan eta pozik ibilli gara. Urrango urtea obeto eta geiago.

OLAZAR'tar MARTIN